

Planifikatu, antolatu, AURREZTU

Inurri-gastuak murriztea (txikiak izanik garrantzirik ematen ez zaien etengabeko gastuak)

Helburu txikiak finkatzea

Beharrezkoak ez diren gastuak murriztea

Erosketa konpulsiboak saihestea

Hilean ehuneko bat aurrezteko beti



% 50 Oinarrizko gastuak

Hipoteka, fakturak, erosketak eta abar. Nahitaez egin beharreko gastuak dira. **Zerbait soberan baduzu, hobeto: batu aurrezkiarekin!**



% 20 Aurrezkia

Koltxoi hori lagungarri izango zaizu **ustekabeko zorrei, etxeko erreformei, familia-aldaketei** eta abarrei aurre egiteko. Eta, gaztea bazara, egunen batean aurrezki onak izatea eskertuko duzu!

% 30

Gastu pertsonalak

Arropa, aisia, ospakizunen bat... baita gastu errepikariak edo ustekabekoak ere, hala nola **dentista** edo **betaurreko berriak**. Adi, beharbada **lehentasunak finkatu** beharko dituzu ehuneko batetzeko. Eta hila ondo badao eta zerbait soberan baduzu... **aurreztu!**

Aholku batzuk

Aprobetxatu denbora!

Gaur egun, interes-tasak edo inflazioa zure kontra joan litezke. Zure aurrezkiak erabili behar ez badituzu, **inbertitzeko aukera duzu.**

Datozen urteetan erabiliko ez dituzun aurrezkiak badituzu, aztertu **INBERTSIO-FONDO** bat kontratatzeke aukera.

Inbertitzaile adina fondo-mota daude. **Garrantzitsuena hauxe da: kontratatzen duzuna ulertzea eta zure profilerako eta beharretarako egokiena izatea.**

Gogoratu beti erabakiak **lasaitasunez eta erantzukizunez** hartu behar dituzula; izan ere, inbertsio-fondoetan parte hartzeak kapitala galtzeko arriskua ekar lezake.

Zure aurrezkiek epe laburragoko helburua badute, ordea, **AURREZKLIK &...** kontu bat izan liteke aukerarik onena hilero-hilero zure sarreraren **% 20a automatikoki** sartzeko eta, horrela, tentazioak saihesteko.



(Gogoan izan behar adina AURREZKLIK &... kontu izan ditzakezula eta online kontrata ditzakezula).



Kontuak argi!

Berrikusi eta aztertu noizbehinka gastuak, kontrolpean izateko.



Online Bankan eskura duzun **ARGITU** aplikazioaren bidez, hauek egin ditzakezu: gastuak grafikoki ikusi, tipologiaren arabera sailkatu eta begirada batez jakin zure dirua nondik datorren eta nora doan.

Edonola ere, dela inbertitzeko, dela epe laburrera aurrezteko, **gogoratu AURREZKLIKira bideratutako % 20a bereiztea zure sarrerak jaso bezain laster.**

GASTUetara bideratutako zenbatekoa zure kontu korrontean gorde dezakezu.



Hala ere, batzuetan zaila izaten da gastuak edo soberakin txikiak kontrolpean izatea.



Hori gertatzen bazaizu, egizu proba hau: bereizi hilero **% 30 GASTU PERTSONALETARAKO** eta erabili kopuru hori behar duzun neurrian, bai **bigarren txartel baten bidez**, bai **zure kontu korrontera intsuldaketak** eginez

Eta gogoan izan: **gastatzen ez diren aurrezkiek euren balioaren zati bat gal lezakete.** Hortaz, aurrezki-helbururik ez baduzu begien aurrean, **aztertu serioски INBERTITZEKO aukera.**



Zalantza bat baduzu hori egiteko moduz, zoaz zure **LABORAL Kutxako** bulegora edo jarri harremanetan zure gestorearekin **Online Bankaren bidez**, aukera guztien berri eman diezazun.